



## HERRIKO KONTSEILUAREN ERABAKIA ORTZAIZE HERRIA

### 2025eko azaroaren 4ko saioa

Bi mila eta hogeita bost urteko azaroaren 4an arratseko zortzietan biltzera deiturik, herri honetako Herriko Kontseilua frantses legeak behartu kopuruan bildu da, bilkuren ohiko lekuan Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza saioko lehendakari izanik.

**Presente ziren:** FALXA Odile, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Ahalordeak:** DACHAGUER Peiok LEKUMBERRY Xantxori

**Ezin etorriak:** AYÇAGUER Elorri, CASIRIAIN Elena, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, HEGUY Antton, GOICOECHEA Iñaki

**Saioko idazkaria:** FALXA Odile

Deialdiaren data: 2025eko urriaren 31a

Afixatze data: 2025eko urriaren 31a

### **2. ERABAKIA: ARROSAKO HERRIARI EMANEN ZAION DIRU-LAGUNTZAREN FINKATZEA ESKOLA PUBLIKOAREN 2024-2025 IKASTURTEKO FUNTZIONAMENDUARENTZAT** (7.5 nomenklatura)

Auzapezak Herri Biltzarrari jakinarazi dio Arrosako eskola publikoaren funtzionamendu kostua 12 174,26 €koa izan dela 24 ikaslerentzat, hots 507,26 € ikasle bakoitzeko, Arrosako Auzapezak adierazi duen bezala.

2024-2025 ikasturtean, Ortzaizeko 15 haur zeuden Arrosako eskola publikoan eskolaraturik (CE2, CM1 eta CM2).

Ondorioz, Auzapezak Herri Biltzarkideei proposatu die, Ortzaizen bizi diren eta Arrosako eskola publikoan eskolaratuak diren haurrentzat funtzionamendu diru-laguntza baten onartzea.

Eztabaidatu eta gero, Herri Biltzarrak,

**ERABAKI DU**, 2025erako, 7 608,90 €ko diru-laguntza ematea Arrosa herriari.

Jardunean diren kideak: 15  
Presente direnak: 8  
Adierazi diren bozkak: 10 (9 presente eta ahalorde 1)  
ALDE: 10  
KONTRA: 0  
ABSTENTZIOA: 0

Gorago zehaztu urte, hilabete eta egunean deliberaturik. Presente ziren kideek erregistroa izenpeturik. Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZE, 2025eko azaroaren 13an  
Auzapeza:  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Honako akta indarrean izanen da,  
2025eko azaroaren 13an argitaratu edo jakinarazi ondotik  
eta egun berean suprefekturara igorri ondotik.